



Bizkaiko Batzar Nagusiek ez dabe onartu erakundeei presea sartzetik, San Mameseko estadioan atletismo pista eregiteko

Bizkaiko Batzar Nagusietako Ekonomia eta Ogasuneko batzordeak ez dau onartu gaur goizean Arturo Aldecoa Talde Mistoko batzordekideak aurkeztu dauen Arauz Besteko Proposamena. Bertan, eskaria egiten jaken Bizkaiko Foru Aldundiari, Bilboko Udalari eta Eusko Jaurlaritzari, “San Mameseko zelai barrian konprometidu zan atletismo pista ahalik eta arinen bultzatzeko, justifikau bako atzerapen barik”. Proposamenak Talde Popularraren aldeko botoa, EH Bilduren abstentzinoa eta Podemos Bizkaia, Euskal Sozialistak eta Euzko Abertzaleak taldeen kontrako botoak jaso ditu.

Talde Mistoko batzordekideak, bere egunean “Athletic taldearen zelai barria eregiteko orduan diru publikoa ordaintzea konpentsetako erakundeen konpromiso irmoa” izan zan azpiegituren eregintzea data barik atzeratzeko Eusko Jaurlaritzak daukan asmoa ezagutu ostean aurkeztu eban ekimena. PP taldeak akordio horregaz aurrera jarraitzea bultzatu dau, eta EH Bildu abstenidu egin da, “konpromisoak bete egin behar diran arren, une honetan beste lehentasun batzuk dagozala” uste dauelako. Podemos Bizkaiaren eretziz, “ez dago ezelango ez beteterik, ez dagolako proiektua gauzatzeko eperik, eta ulertzen dogu, baita be, une honetan lehentasuneko zeozer ez izatea”.

Foru Gobernua eusten daben taldeek, EAJ-PNV eta PSEk, azpimarratu dabenez, alde batetik, proiektua ez dago baztertuta, baina ez da preminazkoa, eta herritarren beharretara eta aurrekontuen erabilgarritasunera egokitu beharko da. Hori guztia kontuan izanda, Arauz Besteko Proposamena ez da onartu, aldeko boto bi, kontrako 11 eta hiru abstentzino lortu ditu eta.

IRREGULARTASUNAK ATHLETIC-EN MUSEOAREN LANETAN

Athletic taldearen estadio barria izan da, baita be, Ekonomia eta Ogasuneko batzordeko eguneko gai zerrendako beste puntu baten xedea. José María Iruarrizaga Sail horretako titularrak agerraldia egin dau, Taldearen Museoa eregiteko lanetan egon diran irregulartasunen gaineko salaketan aurrean Aldundiak daukan jarrera azaltzeko.

Agerraldia Asun Merinero Podemos Bizkaia taldeko bozeroaleak eskatuta egin da. Talde moreak Athletic-en Museoaren obretan Bizkaiko Eregintzaren Konbenioa bete ez izanagaitik lan ikuskaritzan aurkeztutako salaketearen eta horren epaiaren inguruko azalpenak emotea eskatzen eban. Merinerok autortu dauenez Bizkaiko Foru Aldundiak ez dauka eskumenik kasu horretan, eta arazoa konponduta dago, aldeen artean akordioa lortu dalako, baina Foru erakundeak “esateko zeozer eukiko dauela” azpimarratu dau, eta horren gaineko ezelango jarduketarik aurrera eroan ete dan galdetu dau.

Iruarrizagak adierazo dauenez, “San Mames Barria erakundeko bazkidea dan neurrian, Aldundiak ez dauka ezelango erantzukizunik, eta erantzukizun osoa Athletic Club taldearena da, berak kontratau dauelako obrea”. Talde Popularra eta EH Bildu bat etorri dira Athletic-i beharginen eskubideak betetea exijitu behar jakola esatean, eta EAJ-PNV eta PSEko bozeroaleek barriro esan dabe eskaria lekuz kanpo dagola, Aldundiak ez daukalako gai horretan ezelango

eskumenik.

IRUZURRAREN KONTROLA MERKEALDI AZOKATAN

Bizkaiko Batzar Nagusietako Ekonomia eta Ogasuneko batzordearen gaurko saioak hirugarren gai bat be landu dau. Javier Ruiz PP taldeko batzordekideak merkealdi azokatan ezarten diran kontrol neurrien gaineko informazioa eskatu deutso Ogasuneko diputatuari. Bozeroale popularrak, merkataritzaren arlotik iruzur posible baten inguruko kontrol fiskal faltearen gaineko salaketak jaso dituala adierazo dau. José María Iruarrizagak azaldu dauenez, bere Sailak kalez kaleko salmentan aritzen diran 12 pertsona fisikoren kontrako prozedura zabaldu dau orain denpora gitxi. Pertsona horreek ez dagoz alta emonda, eta aurreikusten jaken zor fiskala 350.000 euro ingurukoa da. Horrez gain, beste zazpiti espediente zabaldu jake. Gainera, Bizkaiko Foru Ogasunak jarduera horretan aritzen diran 411 pertsona identifikatu ditu, eta horreetatik 157 baino ez dagoz alta emonda.

Javier Ruizek berretsi dauenez, bidebakokeria eta merkataritza arloko norgehiagoka desleiala BECen edo hoteletan egiten diran azokatan emoten dira batez be, leku horreetan esku-diruzko salerosketak egiten diralako, fakturarik eta ezelango aztarna fiskal barik. Foru diputatuak erantzun dauenez, Foru Ogasunak jarduteko, beharrezkoa da aurretik salaketak jasotea.

NOTA DE PRENSA

18/12/2017

Las Juntas Generales de Bizkaia rechazan urgir a las instituciones para la construcción de la pista de atletismo en el estadio de San Mamés

La Comisión de Economía y Hacienda de las Juntas Generales de Bizkaia ha rechazado esta mañana una Proposición No de Norma presentada por el juntero del Grupo Mixto Arturo Aldecoa en la que se solicitaba instar a la Diputación Foral de Bizkaia, el Ayuntamiento de Bilbao y el Gobierno Vasco “a impulsar cuanto antes la construcción de la pista de atletismo comprometida en el nuevo campo de San Mamés, sin demoras ni dilaciones injustificadas”. La propuesta ha recibido el apoyo del Grupo Popular, la abstención por parte de EH Bildu y el voto en contra de Podemos Bizkaia, Socialistas Vasco y Nacionalistas Vascos.

El apoderado del Grupo Mixto había presentado esta iniciativa tras conocerse la intención del Gobierno Vasco de aplazar sin fecha la construcción de una infraestructura que constituyó en su día “un compromiso institucional firme como compensación al desembolso de fondos públicos en la edificación del nuevo campo del Athletic”. El PP ha apoyado el mantenimiento de dicho acuerdo, mientras que EH Bildu se ha abstenido por entender que “aunque los compromisos son para cumplirlos, entendemos que haya otras prioridades”. Podemos Bizkaia ha estimado que “no hay incumplimiento porque no hay un plazo para la realización del proyecto, y entendemos también que no sea una prioridad en este momento”.

Los grupos que apoyan al Gobierno foral, PNV y PSE, han subrayado, por un lado, que el proyecto no está descartado, pero que no es urgente y debe adaptarse a las necesidades ciudadanas y a la disponibilidad presupuestaria. Con estos posicionamiento, la Proposición No de Norma ha quedado rechazada con dos votos a favor, 11 en contra y tres abstenciones.

IRREGULARIDADES EN LAS OBRAS DEL MUSEO DEL ATHLETIC

El nuevo estadio del Athletic ha sido objeto de otro de los puntos del orden del día en la Comisión de Economía y Hacienda, con la comparecencia del titular del Departamento correspondiente, José María Iruarrizaga, para exponer su posición ante las denuncias de irregularidades en las obras de construcción del Museo del Club.

La comparecencia se ha procedido a solicitud de la portavoz de Podemos Bizkaia Asun Merinero, que solicitaba conocer datos sobre la denuncia ante Inspección de Trabajo y el incumplimiento del Convenio de la Construcción en dichas obras. Merinero ha reconocido que la Diputación Foral de Bizkaia no tiene competencias en este caso y el problema está ya solucionado por acuerdo entre las partes, pero ha incidido en que el ente foral “algo tendrá que decir” y se ha interesado por si ha llevado a cabo alguna actuación al respecto.

Iruarrizaga ha afirmado que “en tanto que socio de San Mamés Barria, la Diputación no tiene ninguna responsabilidad, y ésta corresponde únicamente al Athletic Club como contratante de la obra”. Tanto el Grupo Popular como EH Bildu han incidido en la necesidad de exigir al Athletic que se cumplan de los derechos de los trabajadores, mientras que los portavoces de PSE y PNV han reiterado que la solicitud está fuera de lugar por falta de competencias en esta materia por parte de la Diputación.

CONTROL DEL FRAUDE EN LAS FERIAS DE REBAJAS

La sesión de hoy en la Comisión de Economía y Hacienda ha abordado un tercer asunto, como ha sido una pregunta por parte del apoderado del PP Javier Ruiz al diputado de Hacienda en torno al control del fraude en las ferias de rebajas. El portavoz popular ha afirmado haber recibido denuncias desde el ámbito del comercio en torno a falta de control fiscal un posible fraude. José María Iruarrizaga ha explicado que su Departamento ha abierto en fechas recientes un procedimiento contra 12 personas físicas dedicadas a la venta ambulante sin estar dadas de alta y con una deuda fiscal estimada en 350.000 euros, además de haber expedientado a otras siete. Ha señalado asimismo que la Hacienda Foral de Bizkaia ha identificado a 411 personas dedicadas a esta actividad, de las que solo 157 están dadas de alta.

Javier Ruiz ha reiterado que el agravio y la posible competencia comercial desleal se localizan más bien en ferias celebradas en recintos como el BEC o los hoteles, en donde se producen transacciones de compra-venta en metálico y sin factura ni huella fiscal, y el diputado foral ha replicado señalando que para que la Hacienda Foral actúe es preciso que reciba previamente las denuncias.